

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**140/2020 Foru Agindua urriak 9koa, 137/2020 Foru Agindua aldatzen duena, irailaren 23koa, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak Arabako lurralde historikoan arautzen dituena, COVID-19ren osasun-krisiak iraun bitartean**

Eusko Jaurlaritzak, Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 14ko Aginduaren bidez, formalki berraktibatu du Euskadiko Babes Zibileko Plana, COVID-19 hedatzearen ondorioz sortutako osasun-alerta egoeraren aurrean. Jarraian, Lehendakariak, abuztuaren 15eko 17/2020 Dekretuaren bidez, beretzat hartzen du Euskadiko Babes Zibileko Planaren zuzendaritza, COVID-19ren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak sortutako egoera dela eta, ezohiko moduan.

Lehenago, Estatuko Administrazio Orokorrak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zuen COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko, hamabost (15) egunez, eta hainbat aldiz luzatu izan da. Azken luzapena ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren bidez egin zen, eta 5. artikuluan ezartzen duenez, COVID-19 pandemiari aurre egiteko hartutako ezohiko neurriak arintzeko Planean aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, alarma-egoera deklaratzetik eratorritako neurriak ondorioz gabe geratuko dira. Errege Dekretu horren 6. artikulua honako hau dio: "Administrazio bakoitzak bere zerbitzuen kudeaketa arruntan indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak gordeko ditu, agintari eskudunaren agindu zuzenen esparruan beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, alarma-egoeraren ondorioetarako, eta 3. eta 5. artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe".

Horrela, familiarekiko edo hurbileneko pertsonetik harremana edozein motatako zentrotan bizi diren pertsonen eskubidea eta beharra dela kontuan hartuta, Gizarte politiketako Departamentuak abuztuaren 7ko 127/2020 Foru Agindua onartu zuen, zeinaren bidez irteerak mugatzen baitira, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako bisitak mugatzen eta arautzen baitira, eta titulartasun publikoko eguneko zentroyen irekiera zehazten baita; salbuespena, Bizia eguneko zentroko asteburuetako zerbitzuak izango dira, 2020ko abuztuaren 10etik aurrera.

Ondoren, irailaren 23ko 137/2020 Foru Aginduaren bidez, irteerak eta bisitak batera arautu ziren, funtsezko elementuak baitira egoiliarren osasun fisikorako eta emozionalerako, eta, aldi berean, COVID-19rekin lotutako prebentzio-jarraibideak aplikatu ziren.

137/2020 Foru Agindua indarrean daraman epe laburrean, haren irismenari buruzko zalantzak sortu dira, eta, segurtasun juridikoaren printzipioaren mesedetan, komeni da horren inguruan juridikoki zehaztutako irizpide bat argitzea eta ezartzea. Era berean, egoiliarren irteerak arautzen dira, familia-oporrak hartu ahal izateko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan oinarrituta, eta COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoaren arabera, sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko behar diren jarraibideak emateko.

Indarrean dagoen araudian esleitutako eskumenetan oinarrituta,

#### EBAZTEN DUT

#### **Lehenengoa. Irailaren 23ko 137/2020 Foru Aginduaren lehen atala aldatzea. Honela geratuko da idatzita**

**Lehenengoa.** Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako, desgaitasuna duten Arabako Lurralde Historikoko pertsonentzako eta titulartasun pribatuko hainbat zentrotan Arabako Foru Aldundiak itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztientzako egoitza-zentroetako senide eta/edo hurbilekoen bisitak eta irteerak egiteko modua ezartzea.

#### **Bigarrena. Irailaren 23ko 137/2020 Foru Aginduaren hirugarren atala aldatzea. Honela geratuko da idatzita**

**Hirugarrena.** Egoiliarren irteerak, batez ere, ibilaldi terapeutikoak izango dira, egoitzaren inguruko espazio irekietan gertukoek edo ahaideek lagunduta.

Gehienez ere astean bi irteera egin ahal izango dira egoiliar bakoitzeko, egoera epidemiologikoak ahalbidetzen duen zentro guztietan. Aipatutako irteeretan, kasu guztietan, espazio itxi eta jendetsuak saihestu egingo dira. Irteeren gehienezko iraupena ordubetekoa izango da, eta egoiliar bakoitzeko gehienez 2 pertsonaren laguntzarekin egingo da, ahaideak edo gertukoak.

Familiekin oporretara joateko baimena ematen da, gutxienez 15 egun eta gehienez 45 egunez. Irten aurretik, etxean dagoen bitartean hartu beharreko neurriak buruzko informazioa jasoko du, ahoz eta idatziz, eta erantzukizun-agiri bat sinatuko du. Egoitzara itzuli aurretik PCRak egiteko era kudeatuko dute, adieraziko zaion bezala. Zentroan sartu aurretik, sintomarik ez duela izan egiaztatuko da, eta COVID-19 positiboarekin edo familia-ingurunean isolamendu prebentiboan dagoen inorekin kontaktuan ez dela egon egiaztatuko da. Zentroan bizitzen hasi ondoren, maskara kirurgikoa erabiltzeko prebentzio-neurriak zorrotz eta sintomatologiaren zaintza estua egingo da 14 egunez. Egoitzara itzultzean: arropa guztia kenduko da garbitzeko, zapaten zola desinfektatuko da eta, hala badagokio, gurpil-aulkia edo bestelako laguntza-produktuak ere garbituko dira.

#### **Hirugarrena. Irailaren 23ko 137/2020 Foru Aginduaren zazpigarren atala aldatzea. Honela geratuko da idatzita**

**Zazpigarrena.** Senitartekoek eta/edo hurbilekoek Egoitzetan aurrez aurreko bisitak egiteko mendekotasun-egoeran dauden adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonari, honako baldintza hauek bermatu beharko dituzte, gutxienez:

A. Esku-higieneko eta arnas higieneko neurriak zorrotz egingo dira, eta egoiliarraren COVID-19ren eraginaren arabera beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira.

B. Egoiliarra COVID-19rekin diagnostikatuta badago, bisitariak FFP2 maskara, eskularruak, pantaila eta txabusina duten norbera babesteko ekipamendu osoak erabili beharko dituzte.

C. Zentroko beste edozein pertsonarekiko gutxieneko distantzia gutxienez 2 metrokoa izateko moduan antolatuko da.

D. Zentroko osasun-langileek kasu zehatz bakoitzerako ezarriko dute infekzio-arriskua minimizatzeko jarraitu beharreko prozedura.

E. Zentroko arduradun batek gainbegiratu du higiene-arauen aplikazioa eta ezarritako babesen erabilera, tenperatura hartuko du, eta bisitariari galdetuko dio COVID-19rekin lotutako sintomarik duen; kasu horretan, bisita eten egingo da. Azkenik, gogorarazi Egoitzari jakinarazi behar zaiola bisita egin eta hurrengo egunetan COVIDekin bateragarriak diren sintomak agertzen badira.

F. Ahal dela, kanpoko pertsona berarekin egingo dira bisitak, baina salbuespenak egin ahal izango dira inguruabarren arabera.

G. Ordutegiak senideari bisita egitea ahalbidetzeko moduan programatu beharko dira, bisitarien arteko gurutzaketa fisikoa saihesteko, egunean zehar mailakatuz.

H. Ahal den neurrian, bisitak bizigarritasun-eremutik kanpo egingo dira, egoiliarraren gela saihestuz, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kanpoaldetik ahalik eta hurbilen egongo da, beharrezkoak ez diren igarobideak saihesteko, espazio zabal eta aireztatu batean.

I. Ibilbidea ondo seinaleztatuta egongo da – edo zentroko profesionalekin egingo da – eta ez da gurutzatuko egoiliarren zirkulazio-zirkuituekin.

J. Sarbidean, gel-hidroalkoholiko banagailu bat eta eskuak desinfektatzeko metodo egokia azaltzen duen infografia bat jarriko dira, bisitaren aurretik eta ondoren erabiltzeko.

K. Bisita egin aurretik, errespetatu beharreko higiene-arauen berri emango da, bai eta to-paketa egingo den tokiaren kokapenaren eta bertara sartzeko moduen berri ere.

L. Egoiliarrak zein bisitariak ukitu ditzaketan altzariak desinfektatu egingo dira bisita batetik beste baterako tartean.

M. Kanpoko objektuak egoiliarrari ematea saihestuko da. Halakorik gertatuz gero, non utzi behar diren jakinaraziko da, egoiliarrari eman aurretik desinfektatu ahal izateko.

N. Egoiliarrak – ahal den guztietan – eta laguntzaileak maskara eraman beharko dute, eta gel-hidroalkoholikoa erabili bisitaren aurretik eta ondoren.

Ñ. Nahiz eta 2 metroko distantzia fisikoaren jarraibidea arau orokor gisa aplikagarria den, betiere maskara eta eskuen higienearekin, kontaktu fisikoa onartuko da pertsonen arteko harremana izateko modu bakarra denean soilik.

**Laugarrena.** Foru Agindu hau onartzen den egunean bertan jarriko da indarrean, hargatik eragotzi gabe ALHAOn argitaratzea, eta indarrean iraungo du harik eta COVID-19ren pandemiak eragindako osasun-krisiaren inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 9a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**